

# Bidaia - koaderno



Ikasgelako bidaia-koaderno bat sortuko dugu, eskolako jostalekuaren azterketa abiapuntu hartuta.

## Helburuak

- Leire Urbeltzen obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Gure inguruaren, enpatiaren eta harremanetarako gaitasunaren behaketa sustatzea.
- Gure barne mundua adierazi eta besteekin partekatzea.
- Marrazketa- eta autoedizio-teknika batzuk lantzea.
- Elkarlanaren balioa nabarmentzea, arteetatik heldu diren estrategiak landuta.

## Aipamenak

*Leire Urbeltz. La búsqueda de la ilustración expandida - EITB Kultura:* [eitb.eus/es/television/programas/eitb-kultura/videos/detalle/5203276/video-leire-urbeltz-la-busqueda-ilustracion-expandida/](http://eitb.eus/es/television/programas/eitb-kultura/videos/detalle/5203276/video-leire-urbeltz-la-busqueda-ilustracion-expandida/)

*Un ingeniero aeronáutico crea los cuadernos de viaje más maravillosos del mundo - Cultura Inquieta:* <https://culturainquieta.com/es/arte/ilustracion/item/13714-un-ingeniero-aeronautico-crea-los-cuadernos-de-viaje-mas-maravillosos-del-mundo.html>

*Artisten bidaia-koaderno:* <https://blogs.upm.es/nosolotecnica/2017/01/05/cuadernos-de-viaje-de-eugene-delacroix-a-joaquin-gonzalez-dorao/>

*Enkoadernazio teknikak:* <https://www.sleepydays.es/2016/04/tecnicas-encuadernacion-manual.html>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Leireren *Borderland* lana ikusten dugu, agertzen diren elementuei eta erabiltzen dituen teknikei erreparatuta.
2. Jostalekuaren plano baten gainean, 5 zatiketa egiten ditugu, jostalekuaren mapa bat sortuz, gure patioa kontinente bat balitz bezala. Non egon litezke mendiak, ibaiak, hiriak...? Lehenengo, bikoteka egiten dugu, eta gero, mapa bakar bat adosten dugu ikasgelarako.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bikoteak egiten ditugu eta 5 espazio horiek esleitzen ditugu. Haietako espazio bakoitza bisitatu beharreko herrialde bat bezala hartzen dugu, eta koaderno batekin eta hainbat arkatz eta errotulagailurekin ateratzen gara honako hau bilatzeko:
  - Ohikoaz bestelako egoera. Deigarri zaigun egoera (adibidea: negar egin arte irriz ari diren bi haur).
  - Bestelako gorputz bat, espazioan barna mugitzeko moduagatik, egiten duen soinuagatik, bere formaren ezaugarriengatik edo beste gorputz batzuekin duen harremanagatik.
2. Espazio bereko bi bikote elkartzen gara eta gure ikerketak eta marrazkiak alderatzen ditugu (zertan dira berdinak; zertan, ezberdinak; maparen zer aldetan aritu diren lanean...).

3. Hasierako zirriborro horiek lantzen ditugu; lehenik, kolore primarioekin; gero, sekundarioekin... DIN A3/A5 formatu baten gainean. Lurraldearen, gorputzen eta jasotako egoeren berri ematen dugu ohar edo esaldien bidez, aurkitutakoa zer den ulertzen lagundu dezaketena. Horrela, lurraldearen gaineko mapa iruzkindu bat sortzen dugu, gure ikerlanak barnean txertatuta dauzkana.

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. 4ko taldeetan, beste talde baten mapa bukatua hartzen dugu (beste lurralde baten gainean egindakoa) eta aztertu egiten dugu, honako galdera hauek kontuan hartuta:
  - Zer eginkizun betetzen du ikusminak gure begiratzeko moduan?
  - Gauza bera al da turismo egitea eta bidaiatzea?
  - Zer egiten dugu ezezagunaren aurrean, edo harrigarriaren, ulertezinaren, deigarri zaigunaren aurrean?
2. Talde guztien egunkariak argitalpen bakarrean batzen ditugu, eta hartan, jostalekuko azterketen ondotik egindako gogoetak ere jasotzen dira.